

HIZTEGIA

Hiztegiaren erabilera onerako klase-hasieran ikasleei banatzea eta, hitzak banan-banan hartuta, haien esanahiari buruz mintzatzea proposatzen da.

Gida didaktikoaren barruan aurkituko duzuen hiztegi teknikoak bai bideoan teoria agertzerakoan, bai inguru profesionalean erabiltzen diren oinarrizko hitzez osatua dago.

LIBURUAK

Proposatzen diren liburuak zerikusi estua daukate kameraren eta argien munduko gaiekin eta ikasgaiekin, bai alderdi artistikoa jorratu nahi duenak erabiltzeko, bai alderdi teknikoa jorratu nahi duenak erabiltzeko.

Errealizazioa deitu dugun atalean agertzen diren liburuak sakonagoak dira, eta gaien gehiago sakondu nahi duten ikasle eta irakasleei zuzenduak daude.

BIDEO KAMERA ETA ARGIZTATZEKO TRESNERIA

10. KAPITULUA

PRODUKZIOA ETA ENTSEGUAK

Sarrerako hitzak

Zenbat kidek osatzen du produkzio-taldea? Zein dira haien betekizunak? Dokumentalen eta fikziozko lanen produkzio-prozesuak berdinak al dira? Dena entseatuta eta planifikatua badago, zein da zuzendariaren betekizuna? Galdera horiei eta produkzioarekin eta entseguen zerikusia duten beste batzuei erantzuten ahaleginduko gara kapitulu honetan. *Lantegia* atalean, adibide praktiko baten bitartez, produkzio-taldearen betekizunen berri emango dugu.

Atalak

- Produkzio-taldea
- Produkzioaren antolaketa
- Produkzio-teknikak
- Entseguak
- Aktoreen zuzendaritza

-LANTEGIA ATALA: produkzio-taldearen betekizunak

IKUSENTZUNEZKO BATEN PRODUKZIOA NOLA PRESTATU

-Hasteko, gidoia irakurri istorioaren berezitasunez jabetzeko.

-Hori eginda, eszenak grabatzeko beharko ditugun elementuak azpimarratu, bai objektuak, bai pertsonak.

-Hurrengo lana xehatze-lana da. Horretarako, *xehatze-orriak* izeneko txantiloak erabiltzen dira. Eszenako xehatze-orri bana. Txantilo horietan honako datu hauek adierazten dira:

- >Eszenaren zenbakia.
- >Ekintza kanpoaldean edo barrualdean eta gauez edo egunez gertatzen den.
- >Eszenan parte hartzen duten pertsonaiak era honetan banatuta: protagonistak, bigarren mailakoak eta figuraziokoak.
- >Eszena horretan pertsonaiek daramaten jantziei dagozkien kodeak.
- >Atrezzoak.
- >Ekintzaren deskribapen laburra.
- >*Travellinga* edota garabia bezalako makinak, eta objektibo bereziak, hari gabeko mikrofonoak eta horrelako osagarriak.
- >Eszenan beharko diren animaliak eta ibilgailuak.
- >Ile-apaintze edo makillaje bereziak.
- >Efektu bereziak egiteko, kea, euria, kromarako oihal urdina eta horrelako tresnak.

-Txantilo guztiak beteta, grabazio-plangintza orokorra egingo dugu. Bertan, produkzio-prozesu osoa, egunez egun ordenatuta, adierazten da.

-Hori guztia eginda, erabakitako tokietan grabatzeko behar diren baimenak lortu, aktore eta teknikoak kontratatu eta grabatzeko beharko dugun tresneria eskuratu behar ditugu.

GRABATZEN HASI AURRETIK KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

-Bideo-kamera kokatu aurretik, dekoratua aztertuko dugu, ekintza grabatzeko behar diren **tresna eta apaingarri guztiak** bertan direla egiaztatzeko.

-Bideo-kamera kokatu ondoren, berriro aztertuko dugu dekoratua, **bideo-kameraren eta aktoreen ibilbideak** garbi daudela egiaztatzeko.

-Dekoratuan antolatu dugun **instalazio elektrikoa** arretaz begiratuko dugu, traban dauden elementuak toki segurura aldatzeko.

- Kamera-operadoreak pertsonaien mugimenduen berri izateko; soinulariak, mikrofonoak non kokatu jakiteko; edota argiak behar bezala dauden egiaztatzeko, **entseguak** egitea komeni da.

-Tripodea ongi dabilen egiaztatzeko, hona hemen, bideo-kamera haren gainean jarri ondoren, erantzun beharreko hiru galdera:

- >Orekaturik eta egonkor al dago?
- >Buru birarazteko besoa altuera egokian al dago?
- >Buruak gora eta behera, eta ezkerre eta eskuinera gozo-gozo biratzen al du?

Bideo-kamera aztertzeko, lehenengo, piztu egingo dugu eta, gero, hurrengo galdera hauei erantzungo:

- >Bateria ongi beteta al dago?
- >Objektiboa garbi al dago?
- >Diafragmaren agintea modu automatikoan ala eskuz erabiltzeko moduan dago?
- >Fokatzeko uztaiak gozo-gozo egiten al du bira? Eta zoomarenak?
- >Kolare-tenperaturaren iragazkia eszenari dagokiona al da?
- >Ikusgailuko irudia behar bezala ikusten al da?
- >Mikrofonoak behar bezala jasotzen al du soinua?

LANTEGIA: Produkzio-taldearen betekizunak

Lantegia atala ikusi ondoren, bideoan aipatu diren beharrak eta zaintzak zerrenda batean jaso idatziz. Tresnak zaintzeko lanen ganean hausnarketa egin dezatela eskatu ikasleei lan bakoitzaren arrazoiak kideen aurrean argudiatuz.

Ikus-entzunezkoak ez dira hasieratik bukaerara ordenan grabatzen, ez bada zuzeneko emisio bat. Normalena da dekoratu bat alokatzea edo prestatzea, etxe bat esaterako, eta bertan egin behar diren eszena guztiak jarraian grabatzea; edo aktoreak batzea dekoratuen eta eszenen arabera. Hori guztia eta ikus-entzunezkoan parte hartzen duten beste elementu guztiak antolatzeke egiten da grabazio-plangintza.

Ikus-entzunezko baten grabazio-plangintza grabazioan erabiliko diren elementu guztien aurkezpen ordenatua da. Aurkezpen hori A-3 tamainako edo tamaina handiagoko orri batean marraztutako txantilo batean egiten da. Bertan honako datu hauek azaltzen dira:

grabazio eguna; data; kanpoaldea edo barrualdea den; gaua edo eguna; dekoratuaren izena; atrezzoak; eszenak; pertsonaiak; animaliak eta ibilgailuak eta efektu berezien grabaziorako beharrak.

Datu horiek guztiak idatzi ondoren, kopiak egiten dira eta partaideen artean banatzen. Helburu bikoitza du horrek: batetik, ikus-entzunezkoan lan egingo duten guztiei grabazioko datu guztien berri ematea; eta, bestetik, lan-taldeko partaideei produkzio-taldeak egindako akatsak zuzentzeko iradokizunak egiteko aukera ematea.

Produkzio-taldeak, baina, baditu beste eginkizun batzuk. Ikus ditzagun banan-banan.

-**Aktoreak eta teknikariak kontratatu.** Kontratatu edo kolaboratzaile gisa hartu. Produkzio-taldekoen lana teknikariei eta aktoreei proiektua modu erakargarrian aurkeztea da; izan ere, proiektuan parte hartuko dutenek proiektuari begiratzen diote lehenengo, eta interesgarri baderitzote, diru-kontuetan jarrera malguagoa hartuko dute.

-Dekoratuak prestatzeko **tokiak bilatzea** eta dagozkien **baimenak lortzea** ere produkzio-taldearen lana da. Edozertarako eskatu behar da baimena. Baina, ez beldurtu, baimena gizabidez eskatuz gero, dena lor baitaiteke. Esaterako: eszena bat grabatzeko kale oso bat trafikoari eta jendeari ixtea posible da udalari beharrezko baimena eskatuta. Gainera, ez dugu horregatik langile gehiago kontratatu beharrik izango, udaltzainak arduratuko baitira trafikoa bideratzeaz.

-Grabaziorako behar den **tresneria alokatzea edo lortzea.** Euskarri magnetikoa, ordea, erosi egin beharko du; horretarako, dirua eskura izan beharko du.

-Nahiz eta produkzioa xumea izan, dirua beharko dugu. Horregatik, ordainketa guztien **fakturak eskuratzea** komeni da. Gastu bakoitzak bere egiaztageria behar du kontabilitate-liburuan. Esandakoa lan-taldeko partaide guztiei argi eta garbi azaldu behar zaie, grabazioa hasi aurretik, ez-ulertuak saihesteko. Kontua da lana serio egitea, eta horretarako, administrazioa eta kontabilitatea garbi egitea behar-beharrezkoa da produkzioak arrakasta izan dezan.

-Alde batetik bestera mugitzeko **ibilgailuak** behar izaten dira, bai pertsonak, bai tresnak eramateko; ibilgailuek erregaia kontsumitzen dute; lanean dihardutenei ogitartekoak eman behar zaizkie ordu jakin batzuetan; horren guztiaren ardura produkzio-taldearena da. Produkzio-taldeak, normalean, teknikarien laguntza bilatzen du. Horrela ibilgailuak taldeka banatuz, kameralarientzat bat, soinularientzat beste bat, apaintzaileentzat beste bat eta abar, grabazioa ordenatzea lortzen da, ibilgailu gehiegi mugitu gabe.

-Taldekoei **bazkari-afariak** emateko arruntena, jatatxe batera jotzea izaten da. Otorduen prezio berezi baten truke, filmaren errotuluetan jatatxearen izena jartzen da, laguntzaile gisa.

-**Jantziak** garrantzitsuak dira ikus-entzunezkoak girotzeko orduan. Jantziak lortzeko hainbat era daude. Errazena gure jantzien artean begiratzea da, eta handik ateratzea aktoreek jantziko dutena. Bigarren eskuko jantzi-dendetara jotzea ere ez da aukera txarra. Baina ez ahaztu, jantzi-denda bateko jabeari gure proiektua ilusioz eta gogotsu aurkeztuz gero, ustekabean, jantzi berri-berriak lor ditzakegula, tindategiko kostuaren prezioan. Eta, jakina, filmaren errotuluetan haien izena jarriko dugu.

-**Makillajea eta ile-apainketa** kontuan izan beharreko gaiak dira ikus-entzunezko bat grabatzerakoan. Makillaje berezirik ez badugu behar, gure apaintzaileak duen materialarekin aski izan dezakegu. Horrelakoetan, apaintzeaz arduratuko den pertsonarekin hitz egin eta akordio batera iristea baino ez dugu egin behar. Ile-apaintzailearekin gauza bera egingo dugu.

-Behin baino gehiagotan esan dugu kapitulu honetan gure proiektua modu erakargarrian aurkeztea garrantzitsua dela atak irekitzeko. Eta **txosten bat prestatzea**, istorioaren laburpenarekin, grabazio-tokien argazki batzuekin, aktoreen argazkiekin eta lagunduko diguten enpresekin, ez da beste munduko lana.

-**Lan-agindua egunero ematea** lan-taldeko partaide bakoitzari; eta, bertan, hurrengo egunean egingo den lana zehazten da: grabatuko diren eszenak; zein dekoratutan grabatuko diren; parte hartuko duten aktoreen izenak eta figuranteen kopurua; zer ordutan egon behar duten aktoreek makillaje-gelan; zer ordutan egon behar duen talde tekniko bakoitzak dekoratuan bere lana egiteko; zer ordutan hasiko den grabazioa eta zer ordutan bukatuko den; efektu berezirik badago zer-nolako materiala eraman behar den eta zer ordutarako; eta abar.

-Gerta daiteke grabazioan parte hartuko duten guztiek ez ezagutzea hiria; orduan, lan- aginduarekin batera **hiriko plano bat** ematen zaie, dekoraturaino iristeko bideak azpimarratuta, garraio publikoaren ordutegiarekin. Normalean, denek ezagutzen duten hiriko toki bat hartzen da erreferentzia gisa.

HIZTEGIA

Aktore-zuzendaritza: Aktoreak antzezen lanetan laguntzeaz arduratzen den eginbidea. Aktoreen lana gidatzeko, oso da garrantzitsua zuzendariak garbi izatea zer lortu nahi duen aktoreengandik, haiei ongi azaltzeko bere helburua.

Produkzio-taldea: Ikus-entzunezkoa martxan jartzeaz eta haren grabazioa posible egiteaz ateratzeaz arduratzen den giza-taldea.

Produkzio-taldea erantzukizunen arabera aurkeztu beharko bagenu, produktorea jarri beharko genuke goi-goian; ondoren, produkzio-burua edo produkzio-zuzendaria letorke; jarraian, beheaxeago, produkzio-laguntzailea, erregidorea eta kontularia.

Produkzio-teknikak: Produkzio bakoitzak bere ezaugarriak izaten ditu. Ikus-entzunezkoak grabatzeko erabili ohi diren produkzio-teknikak honako hauek izaten dira:

Grabazio klasikoa: bideo-kamera bakarraz planoka egiten den grabazioa, filmak filmatzeko erabili ohi den teknika, alegia.

Zuzeneko grabazioa: gertatzen dena gertatzen den bezala grabatzeko teknika.

Zuzeneko emisioa: gertatzen dena gertatzen denean jaso eta emititzeko teknika.

LIBURUAK

Bideo-kamera eta argiztatzeko tresneria

MILERSON, Gerald: *Cómo utilizar la cámara de video*, Gedisa, Bartzelona, 1998

SWUAISON, G eta LYVER, Des: *La iluminación en video, Principios básicos*. Gedisa, Bartzelona, 1997

MILERSON, Gerald: *Iluminación para televisión y cine*, IORTV, Madril, 1996

ARONOVICH, R.: *Exponer una historia. La fotografía cinematográfica*, Gedisa, Bartzelona, 1997

Errealizazioa

CHESHIRE, David: *Manual de cinematografía*, Blume, Madril, 1981

FELDMAN, Simon: *La composición de la imagen en movimiento*, Gedisa, Bartzelona, 1995

FELDMAN, Simon: *La realización cinematográfica*, Gedisa, Bartzelona, 1997

Internet

www.imagendv.com

www.quesabesde.com

SERIEA OSATZEN DUTEN KAPITULUAK

- 1.- GRABATZEKO OINARRIZKO TRESNERIA
- 2.- BIDEO KAMERAREN OBJEKTIBOA
- 3.- MUGIMENDUA IRUDIAN
- 4.- ARGIA
- 5.- ARGIZTATZEKO OINARRIZKO TRESNERIA
- 6.- ARGIZTATZEKO TRESNA ETA OSAGARRIAK
- 7.- ARGIZTAPENAREN OINARRIZKO PRINTZIOIAK
- 8.- NOLA ARGIZTATU KANPOALDEAN
- 9.- ARGIZTATZEKO TEKNIKA BEREZIAK
- 10.- PRODUKZIOA ETA ENTSEGUAK
- 11.- GRABATZEN

ekoizlea:

iadi

LG- VI-25 / 06

Banatzaillea:



Getaria, 18-behea, 01010-Gasteiz
Tel-faxa: 945200608
artez@ikusentzunezkoa.euskalnet.net

Ikasmaterial honek
Hezkuntza,
Unibertsitate eta
Ikerketa Sailaren
egokitasun-aitormena
du.

2006/05/12